

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

**Udalaren dirulaguntza plana 2020-2022: Beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharriazko bideratutako dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak aldatzea onartzea. BDNS (Identif.): 579569.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/579569>):

*Lehenengoa:* 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Berariazko oinarri horien artean, beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharriazko bideratutako dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak onartu ziran. Erabaki horien iragarkia 2020ko uztailaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

*Bigarrena:* 2021eko urtarrilaren 29an, Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desagitea onartu zuen eta erabaki hori 2021eko otsailaren 1ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean indarrean sartu zen. Hori dela-eta, beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharriazko bideratutako dirulaguntzen berariazko oinarrietan zenbait aldaketa egin behar dira.

*Hirugarrena:* Bestalde, berariazko oinarrietan zenbait akats antzeman dira eta horiek zuzendu egin behar dira deialdia bideratu aurretik: Aurrekontuan zehaztutako diru kopurua, epeak, diruz lagunduko diren kontzeptuen baldintzak.

Udal Osoko Bilkurak bozketa nominatiboari ekin dio eta, aho batez, honakoa

**ERABAKI DU:**

*Lehenengoa:* Bermeoko beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharriazko bideratutako dirulaguntzen berariazko oinarriak aldatzea onartzea eta erabaki honi erantzen zaion eranskinean zehazten den moduan onartzea:

*Bigarrena:* Gizarte Ongizaterako Sailari beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharriazko bideratutako dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak Datu Base Nazionalera bidaltzeko agindua ematea.

Bermeon, 2021eko abuztuaren 12an. — Alkate ordea, Idoia Platas Arenaza